



Esp. kodea: 2014SAPL0011

Gaia: PLENOA 2014/10/21
Hasiera eguna: 2014/10/14

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2014ko urriaren 21a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko irailaren 16an egindako bileraren akta onartu du.

2.- “G. TAXI, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEA” eta “AGITAX”; 2015erako taxiaren hiri tarifei buruzko idatziak. (2014ZZER0139)

Udal Plenoak, aho batez, Auto-taxiaren 2014ko hiri tarifak 2015 urterako mantentzeko proposamena onartu du, tarifa taula honetan zehazten dena:

	BANDERA JAISTEA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
EGUNEKOA, LANEGUNEAN*	3,5130 €	1,1005 €	21,0175 €
GAUEKOA/JAIEGUNEAN	3,5130 €	1,7553€	33,0393 €

3.- 36/2013 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI PROZEDURARI DAGOKION SENTENTZIAN BETEARAZPENA. (2013SSEC0004)

Udalbatzarrak 26/2013 Administrazioarekiko Auzi prozedurari dagokion sententziaren berri hartu du, non epaileak Arrasateko Udalak 1996ko martxoaren 29an hartutako akordioaren (*Senideak*-ek proposatutako mozioa onartzen duena, “Euskal Presoak Euskal Herrira”ko ikurra udaleko balkoian jartzea adostuz) balio gabetasuna erabakitzen duen, horrela sententzia exekutatzat emanaz.

4.- 2015. URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.(2014RBAR0039)

Udalbatzarrak aldeko 16 boto (Bildu, Aralar eta PSE-EE) eta kontrako laurekin (EAJ-PNV), 2015. Urterako ordenantza fiskalen aldaketa onartu du.

5.- 2014KO URTEALDIKO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSATZEA. (2014DKRE0002)

Udalbatzarrak aldeko 16 boto (Bildu, Aralar eta EAJ-PNV) eta kontrako laurekin (PSE-EE), 2014 urtealdiko aurrekontuaren kredituak aldatzeko espedientea onartu dute.



Esp. kodea: 2014SAPL0011

Gaia: PLENOA 2014/10/21
Hasiera eguna: 2014/10/14

6.- 2014KO AURREKONTUAREN EXEKUZIO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2014-06-30EAN

Udalbatzarrak informazioaren berri hartu du.

7.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO 2. HIRUHILEKOAN ONARTU DITUEN 2014KO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA. (2014RBAR0034)

Udalbatzarrak informazioaren berri hartu du.

8.- ARRASATEko UDALEKO KURTZETXIKI MENDIAN ABEREAk LARREATZEKO ORDENANTZA. (2014IING0041)

Aho batez Udalbatzarrak onartu du Arrasateko udaleko Kurtzetxiki mendian abereak larreatzeko Ordenantzari hasierako onespena ematea eta espedientea jende aurrean jartzea, hogeita hamar eguneko epean, interesatuek nahi dituzten iradokizunak zein alegazioak egin ditzaten.

9.- LIBURU MAILEGUARENGATIK LIBURUTEGI PUBLIKOEk ORDAINDU BEHARREKO KANONA BERTAN BEHERA UZTEA ESKATZEKO PROPOSAMENA. (2014SMOZ0022)

BILDU ETA ARALAR udal taldeek aurkeztutako mozioa onartu da, aldeko 16 boto (BILDU, ARALAR ETA EAJ-PNV) eta 4 abstentziorekin (PSE-EE).

10.- KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIAKO KONTSULTA BEHIN-BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIARI BURUZKO MOZIOA. (2014SMOZ0021)

BILDU ETA ARALAR udal taldeek aurkeztutako mozioa onartu da, aldeko 16 boto (BILDU, ARALAR ETA EAJ-PNV) eta 4 aurkakorekin (PSE-EE).

Arrasaten, 2014ko urriaren 21a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta